

OLENTZERO BATZORDEA 2024 COMISIÓN OLENTZERO 2024

DATA/FECHA: 2024/12/11

ORDUA/HORA: 19:15 – 20:15

LEKUA/LUGAR: ERABILERA ANITZEKO GELA/ SALA DE USOS MÚLTIPLES

DEITZAILEAK/CONVOCANTES: Cristina Ojer Baztán (Euskara zinegotzia/ Concejala de euskera)
y/eta Mikel Zurbano Baquedano (Presidente de Irulegi Euskara Taldea/ko lehendakaria)

BERTARATUAK/ ASISTENTES:

- Cristina Ojer, Concejala de Euskera/ Euskara zinegotzia
- Javier Argüñariz, Concejal de Seguridad Ciudadana/ Herritarren Segurtasun zinegotzia
- Andoni Arrieta, Técnico de euskera/ Euskara teknikaria
- Marta Bueno, Irulegi Euskara Taldea
- Ainhoa Rodrigo, Irulegi Euskara Taldea
- Aritz Elizari, Irulegi Euskara Taldea + AMYPA CP Irulegi/ Irulegi IP-ko Guraso Elkatea
- Joserra Ayala, Irulegi Euskara Taldea + AMYPA CP Irulegi/ Irulegi IP-ko Guraso Elkatea
- Mapi Beroiz, Aldapa + APYMA CP San Pedro/ San Pedro IP-ko Guraso Elkatea
- Santi, Club Triatlón Valle de Aranguren/ Aranguren Ibarreko Triatlói Kluba
- Miguel, Club Triatlón Valle de Aranguren/ Aranguren Ibarreko Triatlói Kluba
- Ruben, Club de Montaña del Valle de Aranguren/ Arangurengo Mendi Taldea
- Andrés Pulido, Gaiteros de Ibaialde/ Ibaialdeko Gaitariak
- Maribel Zamora Mari Domingi
- Iñaki Zabala Olentzero

AURKEZPENA/ PRESENTACIÓN

Bertaratu bakoitzak bere burua aurkezteko eta noren izenean datorren argitzeko erronda bat egingo da.

Se hace una ronda en la que cada asistente se presenta e informa de a qué colectivo representa.

BOLONDRESEN ZEREGINAK/ TAREAS VOLUNTARIOS

Marta Buenok hartu du hitza, eta bolondresei esleitutako eta esleitzeko zereginak erreparatzen ditu. Besteak beste: Atoia prestatu, gune bakoitza gainbegiratu, nabeko gauzak furgonetan sartu, irteera gunea prestatu, joareak jo, plaza apaindu, txokolatea banatu, gozokiak banatu, gaztainak prestatzen eta banatzen lagundu, faroltxoak eraman, *photocallean* ordena mantendu, musika piztu eta itzali eta atoia txukundu. Hainbat zalantza argitzen dira.

Kolektibo bakoitzak boluntario kopuru jakin bat jartzen du, haien izenak Whatsapp bidez partekatutako Excel dokumentu batean idatziz. Aurten arazoak egon dira, dokumentuaren zati batzuk argitzez dauden arrazoiengatik ezabatu egiten zirelako. Zeregin gehienak guztiz edo partzialki beteta daude, baina baten bat hutsik dago oraindik ekarpena zehaztu behar duten kolektiboen zain. Boluntarioen heldutasuna eta motibazioa kontuan hartu da zereginak esleitzerako orduan.

Marta Bueno toma la palabra y realiza un repaso de las tareas asignadas y por asignar a los voluntarios. Entre estas se incluyen: Preparar el carro, supervisar cada zona, cargar las cosas de la nave en la furgoneta, preparar la zona de salida, tocar los cencerros, decorar la plaza, repartir chocolate, repartir caramelos, ayudar preparando y repartiendo las castañas, portar los farolillos, mantener el orden en el *photocall*, poner y quitar la música y limpiar el carro. Se aclaran varias dudas.

Cada colectivo aporta un número dado de voluntarios, apuntando sus nombres en un documento Excel que ha sido compartido por Whatsapp. Este año ha habido problemas porque partes del documento se borraban por alguna razón. La mayoría de tareas están cubiertas total o parcialmente, aunque quedan algunas por llenar a la espera de que colectivos que todavía tienen que concretar su aportación. Se ha tenido en cuenta la madurez de los voluntarios así como su motivación a la hora de asignar las tareas.

EGITARAUA ETA ORDUTEGIA/ PROGRAMA Y HORARIOS

17:30etan, Mutiloabeitiko hilerriko aparkalekuan, animaliak egongo dira, banda eta gaiteroek musika joko dute. Txokolate beroa eta bizkotxoa banatuko dira.

18:10ak aldera (iluntzerakoan) Olentzero eta Mari Domingi iritsiko dira astoarekin. Argiak itzaliko dira. Alboka bat eta zenbait joare joko dira. Zortzi zuzi eramailek korridore bat egingo diete.

Kalejira hasiko da. Honek dirauen bitartean goxokiak banatuko dira. Aurten, ibilbidearen amaierako zatia aldatzea erabaki da azkenean, Frontoi kaletik igaroko da, hurrengo irudian ikusi daitekeen moduan:

A las **17:30** en el parking del **cementerio de Mutilva Baja** estarán los animales, tocarán música la banda y los gaiteros. Se repartirá chocolate caliente y bizcocho.

Hacia las **18:10 h** (cuando oscurezca) llegarán Olentzero y Maridomingi con el burro. Se apagarán las luces. Sonará una alboka y varios cencerros. Ocho portadores de antorchas les harán un pasillo.

Comenzará la kalejira. Mientras dure esta se repartirán los caramelos. Finalmente se ha optado por alterar el último tramo del recorrido y pasará por la calle Frontón, tal y como se puede apreciar en la imagen:



AYUNTAMIENTO
DEL VALLE
DE ARANGUREN



Aranetxean geldialdi bat egingo da, dantzari txikiek dantzatu ostean gaztainak banatuko dira.

Mutiloa Plazan amaituko da kalejira. 18:45 inguru auresku bat eskainiko zaie Olentzero eta Mari Domingiri. Hau amaituta nahi duenak argazki bat hartu ahaliko du haiekin eta berriz ere musika piztuko da.

20:00etan amaituko da ospakizuna.

Se realizará una parada en **Aranetxea**, los dantzaris txikis bailaran y luego se repartiran castañas.

El recorrido terminará en la **Plaza Mutiloa**. Allí sobre las 18:45 se bailará un auresku a Olentzero y Mari Domingi. Terminado este quienes lo deseen podrán fotografiarse con ellos y la música se reanudará.

La celebración **terminará a las 20:00**.

PRESTATZE LANAK/ PREPARATIVOS

Abenduaren 18an lorazainen nabean **atoia apainduko** da arratsaldeko **17:00etan**. Albienteek atea ireki eta itxiko dituzte. Bertan beharrezko gauza guztiak bilduko dira: Farolilloak, zurroiak, larruak, txokolatea banatzeko beharrezkoak, 10 txapel eta zapiak, goxokiak, 10 zuziak...

Abenduaren 24ean 11:30tan gaztaineroa gaztainak erretzen hasiko da eta albienteek Arangurenera eramango dituzte.

16:30tan animaliak hilerrira iritsiko dira, aurtan Ilundaingoek hesia haien kabuz ipiniko dute.

16:30etan lorezainen nabean **furgoneta kargatzen laguntzen** bolondres bat egongo da. Hilerrirako bidean txokolatea jasoko da. 16:45rako atoa jeitsiko da.

Mutiloa plazako paka eta larruak 17:30tarako bertan egongo dira. **17:45** inguru bolondresak **argazkien txokoa apainduko** dute. Musika jarriko da.

Goxokiak banatzeaz edo farolilloak eramateaz arduratzen diren bolondresak **17:50 inguru** hilerriko parkingera **iritsi** beharko dira.

Hilerriko parkingeko garbiketa lanak kalejira atera bezain pronto hasiko dira.

Aureskua amaitu bezain laster, **18:50 inguru** argazkiak ateratzeko ilara ordenatu bat osatzeaz arduratuko dira bi bolondres.

Mutiloa plazako garbiketa 20:00etan hasten da. Musika itzaliko da.

Abenduaren 26ean nabean gordetako guztia bere tokira itzuliko da. **Eta atoa zein txokolatea zeramaten termoak garbituko** dira.

El **18 de diciembre** se decorará la carroza en la nave de los jardineros a las 17:00. Los alguaciles abrirán y cerrarán las puertas. Allí se reunirá todo lo necesario: Farolillos, zurriones, pieles, utensilios para repartir chocolate, 10 txapelas y pañuelos, caramelos, 10 antorchas..

El **24 de diciembre** a las 11:30 el castaño comenzará a asar castañas y los alguaciles las trasladarán a Aranguren.

A las 16:30 los animales llegarán al cementerio y los de Ilundain montarán la valla.

A las 16:30 en la nave de los jardineros habrá un voluntario/a que **ayudará a cargar la furgoneta**. De camino al cementerio se recogerá el chocolate. A las 16:45 se bajará el remolque.

Las pacas y pieles de la plaza Mutiloa estarán allí a las 17:30. Alrededor de las **17:45** horas, los voluntarios/as **montaran el photocall**. Se pondrá música.

Los voluntarios que se encargan de **repartir los dulces o de llevar los farolillos** deberán llegar sobre las **17:50** al parking del cementerio.

Las labores de limpieza del parking del cementerio comenzarán cuando salga la kalejira.

Nada más terminar el auresku, en torno a las **18:50** de la tarde, dos voluntarios se encargarán de **ordenar la fila para las fotos**.

La limpieza de la plaza Mutiloa comienza a las **20:00 horas**. La música se apagará.

Todo lo guardado en la nave volverá a su sitio el **26 de diciembre**. **Se limpiará el remolque y los termos del chocolate**.

B PLANA EURIA EGITEKOTAN/ PLAN B POR SI LLUEVE

Ez da kalejira egingo. **Mutiloa plazako karpan dena bilduko da:** musika, gaztainak, goxokiak eta Olentzero zein Mari Domingirekin argazkiak egiteko aukera, dena bertan egongo da. Ez da animalirik ekarriko.

No se realizará la kalejira. **Todo se concentrará en la carpa de la plaza Mutiloa:** música, castañas, caramelos y la oportunidad de sacarse una foto con Olentzero y Mari Domingi. No se llevarán animales.